



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
18/05/24

## **Beaz, Azpiegiturak, Seed Capital eta Interbiak foru soziedadeak Bizkaiko Batzar Nagusietara etorri dira, euren jardueraren ganeko informazioa emoteko**

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordeak saio bikotxa egin dau gaur goizean. Bertan, Imanol Pradalesek zuzentzen dauen Sailaren esku dagozan hainbat foru soziedade publikok euren jardueren eta proiektuen barri emon dabe. Beaz, Azpiegiturak, Seed Capital eta Interbiak soziedadeetako zuzendari-gerenteak Pradalesegaz batera agertu dira –Saileko Diputatua dan neurrian guztien presidentea bera da– Batzarretako taldeek egin dituen informazio eskariei erantzuteko.

Bost erakunde publiko horreek gaur emon dituen informazioek, Talde Mistoak eta EH Bilduk batera aurrera eroan daben ekimenari erantzuten deutsee. Azkenengo asteetan eskariak izapidetu ditue, Aldundiko sektore publikoko erakunde autonomo eta enpresa guztietako arduradunak Bizkaiko Batzarretako batzordeetara etorri daitezana, euren proiektuen, plan estrategikoen, bertako beharginen baldintzen eta euren jardueragaz erlazionautako ganerako gaien inguruko azalpenak emoteko.

Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuak eta erakunde horreetako zuzendaritza taldeetako kideek emon dituen datu nagusiak honeek dira:

- Beaz Centro de Empresas e Innovación de Bizkaia, S.A.: helburu moduan enpresen promovino, garapena eta lehiakortasunaren sustapena dauen merkataritza soziedadea aitzindaria izan zan, 1987an Estatu osoan sortu zan lehenengo enpresa eta barrikuntza gunea izan zalako. 51 personako lan taldea eta 5.035.000 euroko aurrekontua dauka urte honetarako. Enpresa proiektuen zortzi inkubazino gune kudeatzen ditu, horreetako batzuk UPV-EHUguz, Deustuko Unibersidadeaguz, Eusko Jaurlaritzaguz, SPRIguz edo Bilboko Udalaguz lankidetzan. Beazek lagundutako proiektuen biziraupeneko indizea %80 ingurukoa da, eta epe laburreko lehenetasunak enpresen barrikuntzan eta *startup*-en azkartzean beharrean jarraitzea dira.
- Azpiegiturak, S.A.U.: Aldundiaren esku dagon merkataritza soziedadearen xedea, hainbat motatako (enpresakoak, gizarte arlokoak, kirolekoak) azpiegituren proiektuzino, eraikuntzea, kontserbazino eta kudeaketea da, izan be, hainbat sailen esku egozan zenbait foru soziedadek 2009an bat egin ostean sortutakoa da. Aurton 76,5 milioi euroko aurrekontua dauka, 64 personak osatutako lan taldeaguz. Imanol Pradalesek argitu dauenez, Etxebizitza Foru Plana daborduko indarrean ez dagon arren, Azpiegiturak erakundea arduratzen da bertatik sortutako 1.100 etxebizitzak kudeatzeaz. Gehienak daborduko salduta dagoz, eta 161 alokairuan, asko zaugarritasun egoeran dagozan personei zuzendutakoak. Aurton, Azpiegiturak



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

erakundeak, udalerrri horretako Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, egoera txarrean dagon industria gunean Enpresa Parkea bultzatzeko sustau dabean SestaoBairen kapitalaren %60ren kontrola hartu dau. Foru diputatuak azpimarratu dauenez, orain denpora gitxi 229 lanpostu sortu dira, ITP aeronautika taldearen lantegi batean, eta beste ehun inguru denpora gitxi barru Lantegi Batuakek martxan jarriko dauen lan hastapeneko zentro batean. Horrez gain, aurretik, Vicinay enpresak bere lantegia leku horretara eroan eban.

- Seed Capital Bizkaia: 1989an sortu zan, enpresa proiektu barrizailleak finantzatzeko helburuagaz. Soziedade kudeatzaile bat eta kapital arriskuko lau fondo (I, Bi, Pyme eta Mikro) moduan antolatzen da. Lehenengo hiruek, sektore anitzetako 58 enpresako zorroa daukie parte hartuta une honetan, eta 2018rako aurrekontua 1.290.000 eurokoa da. Lantaldea 12 personak osatzen dabe. Mikro-finantziatzinoko proiektuetan (25.000 €-ko mugea daukienak) aritzeko igaz eratu zan Seed Capital Bizkaia Mikro soziedadeari jagokonez, 2018an 30 eta 35 eragiketa egitea dauka aurreikusita, eta Mikro-finantziatzinoaren Europako Kongresua Bilbora ekartea lortu dau. Kongresu hori urrian egingo da, eta 700 aditu baino gehiago bilduko ditu. Horrez gain, Imanol Pradalesek orain denpora gitxi sortu dan Crowdfunding Bizkaia azpimarratu dau. Finantziatzino modalidade hori daukan Europako lehenengo plataforma publikoa da, eta Foru Aldundiak oso-osorik jarri dauen 60.000 euroko kapitala dauka.
- Interbiak: 2002an sortu zan foru merkataritza soziedadearen xedea bide azpiegituren kudeaketea da, A-8 autobidearen Basauri eta Ermua arteko tartearen eta Artxandako tunelen kontserbazinoa eta Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarraren (Supersur izenagaz ezagutzen dana, fase barria denpora gitxi barru lizitauko dana) eraikuntza, batez be. Egiten ari diran hainbat obra be baditu (Ermuko saihesbidea eta Autzaganekeo tunelak barruan hartzen dituan Amorebieta-Muxika tarte), eta baita proiektuan dagozan beste batzuk be (Uberuaga-Berriatua, Boroa-Igorre eta Meñaka-Bermeo errepide erradialak). 32 personako lan taldea dauka, eta 2018ko aurrekontua 109 milioi eurokoa da. 2035eko epemuga daukan ekonomia eta finantza plana modu egokian ari da beteten, Imanol Pradalesek esan dauenez. Aldundiak erreka azpiko Lamiakoko tunela eregitetako erakutsi dauen asmoak ez dau eraginik izango plan horretan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
24/05/18

## **Las sociedades públicas forales Beaz, Azpiegiturak, Seed Capital e Interbiak comparecen ante las Juntas Generales de Bizkaia para informar de su actividad**

La Comisión de Desarrollo Económico y Territorial de las Juntas Generales de Bizkaia ha celebrado esta mañana una doble sesión en la que diversas sociedades públicas forales dependientes del Departamento que dirige Imanol Pradales han dado cuenta de sus actividades y proyectos. Los directores-gerentes de Beaz, Azpiegiturak, Seed Capital e Interbiak han acompañado a Pradales -que como titular del Departamento preside todas ellas- a la hora de responder a las solicitudes de información por parte de los grupos junteros.

Las informaciones facilitadas hoy por estas cinco entidades públicas dependientes de la Diputación Foral de Bizkaia responden a una iniciativa conjunta de los Grupos Mixto y EH Bildu, que en las últimas semanas han tramitado solicitudes para que los responsables de la totalidad de las entidades autónomas y empresas del sector público foral acudan a las comisiones correspondientes de la Cámara vizcaína para dar cuenta de sus actuaciones y proyectos, planes estratégicos, condiciones de su personal y demás cuestiones relacionadas con su actividad.

Los principales datos aportados por el Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial y por los directivos de las diversas entidades han sido los siguientes:

- Beaz Centro de Empresas e Innovación de Bizkaia, S.A.: esta sociedad mercantil, cuyo objeto es la promoción, el desarrollo y el fomento de la competitividad de las empresas, fue pionera al constituirse en 1987 como el primer centro de empresa e innovación creado en el Estado. Dispone de una plantilla de 51 personas y un presupuesto de 5.035.000 euros para este año. Gestiona ocho espacios de incubación de proyectos empresariales, algunos en colaboración con la UPV-EHU, Universidad de Deusto, Gobierno Vasco, SPRI o Ayuntamiento de Bilbao. El índice de supervivencia de los proyectos apoyados por Beaz ronda el 80%, y sus prioridades a corto plazo son las de seguir trabajando en innovación empresarial y aceleración de *startups*.
- Azpiegiturak, S.A.U.: sociedad mercantil foral que tiene por objeto la proyección, construcción, conservación y gestión de infraestructuras de diferente naturaleza (empresariales, sociales, deportivas), ya que deriva de la fusión en 2009 de varias sociedades forales adscritas a diferentes departamentos. Dispone para este año de un presupuesto de 76,5 millones de euros, y cuenta con una plantilla de 64 personas. Imanol Pradales ha aclarado que, aunque el Plan Foral de Vivienda no está ya en vigor, Azpiegiturak se ha ocupa de gestionar 1.100 viviendas derivadas del mismo,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

con una mayoría ya vendidas y 161 en alquiler, en buena parte destinado a personas en situación de vulnerabilidad. Este año Azpiegiturak se ha hecho con el control del 60% del capital social de SestaoBai, sociedad pública promovida por el Ayuntamiento de la localidad y la Diputación Foral para promover un Parque Empresarial en un área industrial degradada, en el que el Diputado Foral ha subrayado la reciente creación de 229 empleos en una planta del grupo aeronáutico ITP, y otro centenar en un centro ocupacional que en breve pondrá en marcha Lantegi Batuak, además del traslado anterior a este emplazamiento por parte de la empresa Vicinay.

- Seed Capital Bizkaia: constituida en 1989 con el objetivo de financiar proyectos empresariales innovadores, se organiza como una sociedad gestora y cuatro fondos de capital riesgo (I, Bi, Pyme y Mikro). Los tres primeros disponen en la actualidad de una cartera de 58 empresas de los más diversos sectores participadas, y su presupuesto para 2018 es de 1.290.000 euros, con 12 personas en plantilla. Por su parte, Seed Capital Bizkaia Mikro, constituida el año pasado para operar en proyectos de micro-financiación (con un límite de 25.000€) tiene ya en perspectiva entre 30 y 35 operaciones en 2018, y ha logrado atraer a Bilbao el Congreso Europeo de Micro-financiación, que se celebrará en octubre con asistencia de más de 700 expertos. Imanol Pradales ha destacado asimismo la reciente creación de Crowdfunding Bizkaia, la primera plataforma pública europea en esta modalidad de financiación, con un capital social de 60.000 euros íntegramente desembolsado por la Diputación Foral.
- Interbiak: esta sociedad mercantil foral, creada en 2002, tiene por objeto la gestión de infraestructuras viarias, fundamentalmente la conservación y explotación del tramo de la autopista A-8 entre Basauri y Ermua y de los túneles de Artxanda, y la construcción de la Variante Sur Metropolitana (conocida como Supersur, y cuya nueva fase se licitará en breve). También mantiene obras en ejecución (variante de Ermua y tramo Amorebieta-Muxika, que incluye los túneles de Autzagane) o en proyecto (carreteras radiales Uberuaga-Berriatua, Boroa-Igorre y Meñaka-Bermeo). Con una plantilla de 32 personas, dispone de un presupuesto de 109 millones de euros para 2018, y de un plan económico-financiero con el horizonte de 2035 que, a juicio de Imanol Pradales, se está cumpliendo satisfactoriamente, y que no se verá afectado por el anunciado propósito de la Diputación de emprender la construcción del túnel subfluvial de Lamiako.